



ikastolak



ARANGOITI IKASTOLA IRUNBERRI



Arangoiti Ikastolako ikasle talde bat, aldizkariko testuak lantzen.

Idazle bilakatzen garenekoa

HIZKUNTZAK LANTZEKO HELBURUAREKIN, BI HEDABIDE LANTZEN DITUGU: EGUZKILORE ALDIZKARIA ETA ARANGOITI IRRATIA

📷 Testua eta argazkia Arangoiti Ikastola

Ikastolan aurretik lantzen zen ideia berreskuratzuz 2012an Hizkuntzetan lantzen ziren testuak eta teknologia berriak elkarrekin lotuta lanean hasi ginen 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutil guztiak. Asteazken arratsaldetan izaten da saioa 14.00etatik 15.30tara. Euskarari, gaztelanian eta ingelesean ikasitako testuak idazten ditugu ondoren argitaratzeko Eguzkilore astekarrian (neguan) edo bestela Arangoiti

ti irradian (udaberrian) argitaratzen ditugu.

EGUZKILORE ALDIZKARIA ARGITARATZEKO LAN SAIO BATEN KRONOLOGIA Aurretik eginda dauden taldeak astero biltzen gara. Hiru kide edo lagun izaten gara.

Ikasle guztion artean asteko gaia aukeratzeko dugu. Oraingoa, idazten ari garena, astero egiten duguna izan da, zaila gero.

Multzokatutako testuak taldeen artean banatzen ditugu eta taldeak berriz, partaideen artean banatzen ditugu.

Gure koadernoetan idazten dugu eta irakasleek zuzentzen dute.

Behin zuzenduta dagoenean ordenagailura pasako dugu testua. Lanon lan egiten dugu, drivean pasatzen ditugu testuak.

Ondoren bigarren zuzenketa egiten da eta taldeka testuak maketa-

tu eta argitaratzeko dira Canva ize-neko plataforman.

Horrela argitaratzen da aldizkaria, irradian berriz koadernoan zuzenduta dagoenean argitaratzen dugu grabatuz gure programak.

IRRATIA/ASTEKARIA EZ ALA BAI?

Aspaldiko eztabaida da ikasleek irratsaioa eta guk bildu nahi izan dugu galdere batean. Guraso batzuei ez zaie gustatzen ikastolan irratsaioak edota aldizkaria prestatzea beste batzuei berriz ikaragarri. Alde batekoek diote denbora galtzea dela eta ez direla horrela hizkuntzak ikasten, eguerdietan ez duela bazkaltzeko denborarik ematen. Batzuk diote ez dutela aukerarik entzuteko irrati programak. Aldekoek berriz, norberaren hitz egiteko gaitasuna eta IK Tresnak erabiltzeko gaitasuna hobetzen dela diote eta ez dugula inoiz etxerako lana eramaten egiteko ardura izaten dugula.

Zuen iritzia jakin nahi dugu... hitzontziak@gmail.com helbidean gaituzue. ●

LABUR-LABUR

Miren Agur Meaberen bisita

IRUNBERRI— Azaroaren 24an Miren Agur Meabe Arangoiti Ikastolara etorri zen. Idazle Lekeitiarra Irunberriko ikasleak bisitatzea etorri zen, Miami-ko omen zeto-rrer nazioarteko azoka batetik. Hala ere, Mirenek ordu eta erdi luzeko azalpena eman zuen bere lanaren inguruan inspirazio iturriak, idazteko momentuak eta guri ere, irakurleoi hainbat galdera egin zizkigun. Bost eta seigarren mailako ikasleak elkarriketatu bat prestatu zioten. Bi urtetatik 12 urtetakoetara, egon ziren. Bihoztak Dun Dun liburuaren azalpena eman zuen, idazteko arazoak eta liburuaren hainbat klabe. Abestu ere egin genuen, gustora pasa. Gero, azalpen bukaeran, sinatzen aritu zen.

Patxi arkularia

IRUNBERRI— Bazen behin Patxi ize-neko arkulari bikaina zen. Patxi txano berde bat zuen luma gorri batekin, bota beltz batzuk oinetan eta jantzi berdea zeraman. Patxi-aren etxea txabola bat zen eta basoan zegoen. Egun batean diena apuntatzen ari zela sagu baten erruz ispilu bat jo zuen. Ispiluan bere irudia agertzen zen. Ispilura begiratzekoan Ispiluko Patxi gezi bat zuela kopetan konturatu zen. Bat-batean Ispiluko Patxi ispilitik ateratu zen eta barrezka hasi zen... "Jende guztia hilko dut! Kar, kar, kar..." Eta desagertu zen. Patxi korrika joan zen herrira baina herrira iritsi zenean jende guztia hilda zegoen. Patxi atzera begiratu zuen eta "Ispiluko Patxi" zegoen... Patxiaren kopetara apuntatzen zegoen eta esan zion: "Askatu geziak!" Patxi geziak askatu zituen, oharkabea, mantso ateratuz zapatilan zuen labana, Patxi labana hartu eta ispiluko Patxi sartu zion.

Ispiluko Patxi laino tartean, zerurantz joan zen. Gero herriko jende guztia berpiztu zen... Baina basoan ahots bat entzun zen:

-Kar-kar... Patxi, begira ezazu ispilura...

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Nola izena du neguan argitaratzen dugun astekariak?
2. Zenbat lagun biltzen gara aldizkariko talde bakoitzean?
3. Nongoa da Miren Agur Meabe idazlea? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Aimar Rebolé (Zangozako Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Unax Eraso (Baztan Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.